

TOP MANTA: BARTZELONAKO SALTZAILE IBILTARIEN SINDIKATUA.



TOP MANTA: BARTZELONAKO SALTZAILE IBILTARIEN SINDIKATUA.

Asko dira gaur egun haien herrialdeetatik ihes egin nahian Europara, gurera, etortzen diren pertsonak. Hauek, arrazoi ezberdinengatik uzten dituzte atzean haien herrialdeak: Miseria, gerra, ezegonkortasun ekonomikoa, korrupzioa. Gurera etortzen dira lan duin bat bilatzearen helburuarekin. Eta normalean, ez da izaten pentsaera indibidualista batekin, baizik eta atzean utzi duten familia laguntzeko asmoz etortzen dira hona.

Bidai hauek arriskutsuak izaten dira. Itsasontziz, pateraz, kamioiez, trenez baita oinez ere egiten dituzte kilometroak, haien helmuga den hirira iritsi arte; askotan mafien eskuetatik pasaz. Iristean ordea, errealitate gordinarekin aurkitzen dira: Atzerritasun legea, kriminalizazioa, miseria, oinarrizko zerbitzuen ukapena...

Baina historia hauek ez dira ausazkoak, logika global baten barruan kokatu egiten dira. Lehenik eta behin kolonialismoaren ondorioak eta neoliberalismoaren eragin latza daukagu. Afrika, oinarrizko baliabide naturalei dagokionez, kontinente aberatsenatarikoa da: Haren kostak arrantzarako, mineralak, mehategiak, lur emankorrak... Eta hala ere, gutxien garatutako herrialdeak honetan aurkitzen dira.

Honakoa XIX. mendearen bukaeran kokatu beharra dago. Europako herrialdeak euren inperio industrial handiak ezartzean, hauen zabalkuntzaren beharra sentituz “Mundu berrira” (Afrikara) abiatu ziren lur berriak konkistatzearen helburuarekin. Europako herrialde ezberdinek Afrika osoa okupatu zuten aberastasun gehiago sortzeko hauen biztanle eta lurak explotatzeko helburuarekin (Castillo 2016).

Gaur egun, geroko deskolonizazio prozesuen bidez herrialde askok autonomia lortu zuten arren, herrialdeak bertan behera geratu ziren. Batetik, inperialismoak herrialde hauek miserian utzi eta korrupzio, mafia eta bestelako bidegabekeriei bidea ireki zitelako. Bestetik, leku askotan deskolonialismoa ez zelako erabatekoa izan. Gaur egun enpresa europar askok Afrikan jarraitzen dute baliabide materialak sautzen, askotan modu irregular edo ilegalean gainera. Hala nola: Koltana Congoan edota arrantza kostaldeetan. (Castillo, 2016)

Honakoa neoliberalismoarekin lotura zuzena dauka, azken finean gaur egun etekin ekonomiko ahalik eta handiena ateratzeko ia “dena” balio duela esan dezakegulako. Era berean, globalizazio eta mundualizazioaren kausaz, produktu eta komertzioa eskala mundialean libreki garraitzeko aukera dago. Garraioa librea da, bai, pertsonentzako izan ezik. (Gamboa, 2019)

Aipatutako kausak direlarik, afrikar askok haien sorterriak atzean utzi eta Europara lan eta bizitza duin baten bila etortzea erabakitzen dute. Hala ere, hona iristean aurkitzen duten egoera ez da batere egokia.

Espainiako kasua, estatu demokratikoa eta ongizate estatua baldin badago ere, atzerritarrek bizi duten egoera erabat desegonkorra eta bortitza da. Izan ere, gaur egungo legegintzak eta arrazismo instituzionalak traba handiak jartzen die etorkinei haien egoera erregulatzeko. Espainian, 3 urte pasa behar dituzte bizileku-baimena lortzeko. Hortaz, haien iritsieratik 3 urte pasa arte ez dute lan egiteko aukerarik, ezta zerbitzu minimoetarako eskubiderik ere. (TopManta, 2019)

Halako egoerak, askok salmenta ibiltarian aritzera bultzatzen die. Hau da, espazio publikoetan, kalean, produktu ezberdinak saltzen jartzera. Aipatu beharra dago jardun hau “ilegaltzat” aitortzen duela Espainiako legeak eta orokorrean bide polizialek eteten saiatzen da. Gainera, poliziarengatik atxilotuak baldin badira, historial administratibo bat irekitzen die. Honakoa kriminaltzat aitortua dago, beraz, haien egoeraren erregularizazioa beste 5 urtetarako atzeratu egiten dute. CIE zentroetan ere gehiegikerizko egoerak bizi behar dituzte etorkinek, Drammek aitortzen duen moduan “abereak” bezala tratatuak dira. (Europres, 2019)

Bartzelonako kasuan, 600 saltzaile inguru daudela aitortzen du udalak eta uda garaian 800 izatera iritsi daitezkeela diote. Hala ere, ez dira zifra batere ziurrak. Izan ere, zaila da jakitea ilegala bezala aitortzen den jardun batean zenbateko pertsonak parte hartzen duten jakitea. (Verificat, 2019)

Gainera, hirian pisu handia hartu izan duen auzia izan da kaleko saltzaileena. Izan ere, hiriko dendari ezberdinek eratzen duten Plataforma de Afecatados por el top manta, azaltzen dute nola %30 iristen diren galerak izan dituzten haien komertzioetan (El Mundo, 2019). Izan ere, Bartzelonako hiriko erosleen %80 turistak izatera iristen dira uda garaian. Hauek dira hain zuzen ere top mantaren erosle zuzenak.

Egoerari aurre egiteko, hasieran esan bezala bide poliziala erabili izan ohi da. Azken urtean hartutako neurri adierazgarrienetarikoa, Bartzelonako portuan egunean zehar presentzia poliziala areagotzea izan da. Honakoa da saltzaile gehien elkartzten den gunea hortaz dispertsio efektua eragin duen arren, 22hetatik aurrera interbentzioa bukatzean berriz ere hor elkartzten dira dendari guztiak. 2017an milloi bat produktu ilegal konfiskatu ziren horietatik 464.000 edari latak zirelarik. (M.J Cañizares 2017).

Argi dago guzti honen atzean arazo estruktural bat dagoela. Izan ere, behin eta berriz errepikatzen ari den bezala, pertsona hauen helburua ez da kaleko salmentan bizi osoan aritzea, haien bizi egoera erregulatzeko baizik. Baina esan bezala, arrazismo instituzionala dago eta pertsona hauen egoera erraztu ordez, haien aurka bortizki jokatu egiten dute. Sarekadak, gehiegikeri polizialak...

Azkenik aipatutako guztia ongizate estatuaren oinarriak erabat kolokan jartzen ditu. Izan ere, estatu eredu honek hezkuntza, osasuna eta pentsioen gainean eraikitzen delarik, hauen ez da herrialde honetako biztale guztein kasuan betetzen (Gamboa, 2019). Era berean etorkinen kasuan ez da eredu honen helburuetako bat ere ez betetzen: oinarrizko beharren asetzea, aukera berdintasuna, tratamendu integrala, gizarte bazterketaren prebentzioa, integrazio plan kohesionatuak eta elkartasuna...

Are gehiago, pertsona hauen egoera ikusirik eta instituzioen jarrera eta erabakiak aztertuz helburu hauen aurka jotzen dutela ondorioztatzeko aukera legoke. Azken finean, bizi baldintzak kaxkarrak dituen pertsona bati (oinarrizkoenak ere asetuak ez dituenari) ezin zaio eskatu egoera hobean bizi den pertsona baten kode etiko berdinarekin jokatzeko, desberdintasun maila handi batetik abiatzen delako gatazka. Beraz, instituzioetan sortzen den arrazakeria geroa kalean bere islada du eta behe mailako pertsonen artean xenofobia eragiten du haien egoera txarraren erantzule bakarra saltzaile ibiltariak balira bezala.

Bartzelonako saltzaile ibiltarien sindikatua.

Halako egoera honi aurre egiteko sortu zen Bartzelonako Saltzaile Ibiltarien sindikatua. 2015. urtean 200 bat saltzaile ibiltari bildu ziren haien egoeraren inguruan hitz egin eta haien artean antolatzen hasteko. Sindikatuaren helburua haien zapalkuntzaren aurrean ahots propioa izan, haien eskubideak defendatu eta administrazioekin negoziazio mahaiak irekitzea da. (TopManta)

2017an Top Manta izeneko marka sortu zuten. Honakoa kolektibo moduan duten egoera hobetu, jendea kaletik atera eta komunikazio kanpainak zabaltzeko helburuarekin sortu zuten. Honakoa arropa marka bat bihurtu dute. Eta gaur egun modu autogestionatu batean sortutako kamisetak, jertseak, poltsak, sudaderak eta bestelako produktuak saltzen dituzte. Modu etiko eta legal batean sortutako arropa da. Horregatik haien leloetako bat “legal clothes made by illegal people da”(Lamine Sarr, 2019). Honekin batera “fake sistema” (sistema faltsu) honek dituen injustiziaz ikustaraztea dute helburu.

Proiektua modu kolektibo eta ireki batean izan zen finantziatua, zeinetan 2500 pertsonak parte hartu zuten. Honen bitartez lan erregularrak sortzea eta komunitatea hiriaren parte izaten saiatzea dute helburu (TopManta).

Gaur egun Top Manta erreferentziazko agente sozial eta politiko batean bihurtu da Bartzelonako hirian. Mugimendu sozialaren parte izan eta kolektibo ezberdin askorekin kontaktuan eta lanean daude gaur egun. Hala nola Sos arrazismoarekin eta Dunia Kato besteak beste.

Haien epe luzeko helburua kooperatiba bat eraikitzea da. Moda eta borroka antiarrazistara lotutako enpresa sozial bat hain zuzen ere. Honen barruan aurreikusten dituzten proiektuen artean eta orain arte Colaren udalarekin negoziatzen saiatzen ari izan direnak: artisautza afrikarreko bazarra, ekimen afrikar kulturalen promotora, ileapaindegi bat, josteta jasangarria eta janari afrikarreko jatetxe bat. Hala ere oraindik ez dira udalarekin hitzarmen sendoetara iritsi, erakundearen ustetan proiektu hauek “konpententzia falta” dute eta (EuropaPress, 2019).

Hala ere, gaur egun, proiektuak denda den lokal propioa, serigrafia tailerra eta joste espazioa dute sortua dute. Jasotzen dituzten etekinei begira, mantero guztien artean ospatzen dituzten asanbladetan halako inbertsio plana adostu izan dute:

%20 etxebizitza fondoa, %20 fondo legalerako, % osasun fondorako, % 13 hezkuntzarako, %13 etorkizuneko kooperatibarako, %7 parte hartze politikorako eta %7 ekimen kulturaletarako.

Honetaz gain, sindikatuan sari ezberdinak jaso izan ditu azkenaldian: Brigde Buldier eta % 1 saria.

Kolektiboak gauzatu duen azkeneko proiektua Loteria Mantera izan da. Honakoan, mundu mailako artista esanguratsu ezberdinek diseinatutako 20 jaka ezberdin zozkatu zituzten (Amaia Arrazola, Chamo San, Flavita Banana...). Horretarako 10€tan saldu zituzten online bidez boletoak. Eta milaka pertsonak parte hartu izan dute.

Kolektibo honen inguruan hitz egitea erabaki dut benetan integrazioa lantzen duen mugimendu bat delako. Izan ere, iniziatiba arazoa bizi dutenen aldetik sortu da. Honakoak, gure gizartean parte hartu nahiaren borondate handia erakusten digu. Era berean, ez da antolakunde oportunitista zein karitatibo batek gauzaturako dinamika. Baizik eta ahots propioa izan nahi duten zapalduak aurrera eramandakoa.

Klasean gizarteratzearen inguruko definizioa honakoa erabaki genuen: *Lanketa kolektibo baten bitartez norbanako eta talde guztiak gizartearen parte izan eta sentitzea, bakoitzaren subjektibitatea aldatu gabe.*

Hasiera hartuz, argi dago halako proiektu hau bi norabideetako izan behar dela. Batetik, zapalkuntza arrazista jasotzen dutenak eta bestetik gizarteko bestelako biztanle guztiok hartu behar dugu konpromezua. Haien proiektuak aukerak izan ditzan gizartean aitortuak izan beharko dira. Horretarako haien ekimenera joan, haien produktuak erosi, sare sozialetan haien perfilak zabatu, haien kamisetak eraman... dagokigu hiritarroi. Era berean, lehen aipatu bezala oso garrantzitsua da bestelako eragile sozialekin lanketa konpartitua egitea. Izan ere gizartea aldatzeko, oinarrietatik eraldaketa bat eman beharko da. Hortaz borroken arteko intersektionalitatea ezinbestekoa da.

Azkenik, bakoitzaren subjektibitatea ez aldatzearen ideia oso garrantzitsua da. Izan ere, Afrikatik datozen pertsonak hauek gure gizartean uztartzeko haien izaera alde batera utzi beharko balute, asimilazioa jasango lukete. Laminnek Sarr azaltzen du nola hona iritsi eta kultura, hizkuntza, ohitura zein pentsaera berri batera egokitzea ez dela batere erraza (Soundcloud, 2019). Honi aurre egiteko elkartruke bat, kultur aniztasuna, da sustatu beharrekoa. Hau da, nobera den bezalakoa aitortu, subjektibitate ezberdinen arteko bizikidetzaz sustatuz.

Top Mantako saltzaileak langile klasearen espresio gordinetako bat da. Hauekin elkartasunetik eta haiek dioten bezala, enpatiatik lanketa egin behar dugu (Soly in Europress, 2019). Gure pribilegioak aitortu behar ditugu eta hauei oinarritzko eskubideak lortzen lagundu behar diegu. Ezin dugu arrazismo instituzionalak sortzen dituen falaziak sinistu eta etsaitasun batean erori. Kapitalismoak miseriara kondentzen gaitu eta honi aurre egiteko aukera bakarra klase batasuna da sistema dual honen aurrean.. Haiek argi duten zein den politikoen eta hiritarren arteko intentzio eta pentsamendu ezberdinak, izan ere komunikabideetan foko bihurtu dituztela aitortzen dute (El Mundo, 2019), bestelako notiziak tapatzeko. Guk ere argi izan beharko dugu sistema dual honi aurre egiteko, Top mantako kideak bidelagun ditugula eta ez etsai.

Bibliografia:

EuropaPress (2019ko abuztuaren 9a) Los manteros acusan a Colau de "traición" y la ven como "única responsable" de las redadas. EuropaPress. Hemendik eskuratua:

<https://www.20minutos.es/noticia/3728842/0/manteros-acusan-colau-traicion-ven-unica-responsible-actuacion-policial-contr-ellos/>

Sarr, L. (2019). *Pobre y Noble*, [Audioa] Bartzelona: Soundcloud. Hemendik eskuratua:

<https://soundcloud.com/user-385878442/pobre-y-noble-por-lamine-sarr?fbclid=IwAR3Z1VWmBRV28scJ4E3hvE0gWPYdM1XFDwMZNpQGNLIC7pPrCCe-5xQD0k8>

Castillo, I. El nuevo colonialismo en África y Asia (Siglo XIX). [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua:

<https://www.lifeder.com/nuevo-colonialismo-africa-asia/>

Ribalaygue, J. (2019ko abuztuaren 29a). Un mes de presión policial al “Top manta” en Barcelona. *El Mundo*. Hemendik eskuratua:

<https://www.elmundo.es/cataluna/2019/08/29/5d66e14dfc6c8339728b460e.html>

Cañizares, M.J. (2018ko martxoaren 28a). La guerra de cifras sobre el top manta. *El Español*. Hemendik eskuratua:

https://cronicaglobal.elespanol.com/politica/guerra-cifras-top-manta_130466_102.html

Gamboa, E. (2019). *Gizarteratzea eta baztertze prozesuak*. Hemendik eskuratua:

https://egela.ehu.eus/pluginfile.php/2360481/mod_resource/content/1/1%20GAIA%202014-2015.pdf